



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

## **EBAZPENA (Espt.: 04/2013, EUSKADIKO BIOLOGOEN ELKARGO OFIZIALA)**

### **Osoko bilkura**

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Ibon Alvarez Casado jauna

Bilbon, 2014ko ekainaren 10ean

### **LABURPENA**

TOCLehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), adierazitako kideak bertan direla, Ebazpen hau eman du EUSKADIKO BIOLOGOEN ELKARGOAREN (aurrerantzean, Elkargoa) 04/2013 Zehapen-espedientearen inguruan. LEKak eskatuta espedientea ofizioz hasi zuen Ikerketa Zuzendaritzak (aurrerantzean, IZ), Elkargoak ustez egindako lehia mugatzeko jarduketan ondorioz.

### **I. AURREKARIAK**

1. LEKak, 2013ko apirilaren 8an egindako bileran, Elkargoari buruzko zenbait dokumentu IZri helaraztea adostu zuen, Lehia Defendatzeko 15/2007 Legearen (LDL) aurkako ustezko jokabidea azter zezan.

Honako hauek ziren dokumentuak:

- 1.- Elkargoaren Oniritziaren Erregelamendua.
- 2.- Zerbitzu profesionalen kontratua.



Dokumentu horiek Elkargoaren webgunean zeuden eskuragarri<sup>1</sup>.

**2.** LDLren **aurkako** Elkargoaren ustezko jokabidea zera izango litzateke: Euskadiko biologoek emandako zerbitzuen baldintzen homogeneizazioa, aipatu dokumentuen bidez.

**3.** 2013ko ekainaren 8an Elkargoaren aurkako zehapen-espeditentea **hastea** adostu zen, LDLn debekatuta dauden lehia mugatzeko jardunbideak egiteagatik. Espediente-hasiera hori 2013ko ekainaren 14an jakinarazi zitzaien interesdunei (22-32 orrialdeak).

**4.** Hauek dira espedientearen inguruko **interesdunak**:

- Euskadiko Biologoek Elkargo Ofiziala
- Lehiaren Batzorde Nazionala (LBN)

**5.** 2013ko ekainaren 21ean, Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA) Erregistro Orokorrean Elkargoko ordezkari legalek izenpetutako idazkia jaso zen. Horren bidez, Elkargoak eskatu zuen zehazpen-prozedura **hitzarmen bidez amaitzeko** jarduketak has zitezela.

Eskaera onartua izan zen, 2013ko ekainaren 28ko Probidentziaren bidez. Gainera, hitzarmen bidezko amaieraren bukaerara arte, etenda geratu zen zehapen-prozeduraren gehienezko epearen zenbaketa, eta konpromiso-proposamena aurkezteko hilabeteko epea eman zitzaion eskatzaileari.

Probidentzia hori 2013ko uztailaren 1ean jakinarazi zitzaien interesdunei.

**6.** 2013ko uztailaren 30ean, Elkargoko ordezkari legalek izenpetutako idazkia jaso zen LEAren Erregistro Orokorrean. Bertan **Konpromiso-proposamen** hau (lehenengo konpromisoak) formulatu zuten (*94. eta 95. orrialdeak*).

---

<sup>1</sup> Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialaren webgunea, URL hau duena: <http://www.cobeuskadi.es>. Azken kontsulta 2014ko ekainaren 10ean egin da.



«A) Ikerketa honen xede diren Elkargoaren Oniritziaren Erregelamendua nahiz zerbitzu profesionalen kontratua Elkargo Profesionalaren WEBGUNETik kendu dira.

B) Beharrezko lanak hasiko dira, Batzar Orokorrak aztertu eta onar dezan oniritziaren izaera boluntariora egokitzen den erregelamendu berria, Elkargo Profesionalari buruzko 2/1974 Legearen 13. artikulua xedatzen duenarekin bat (hori abuztuaren 5eko 1000/2010 Dekretuak garatzen du).

C) Harik eta elkargoaren oniritziari buruzko erregelamendu berria argitaratu arte, elkargoaren WEBGUNEAn argitaratuta egongo da kontsumitzaile eta erabiltzaileek oniritzia eskatzeko aukera dutela.

D) Zerbitzu profesionalen kontratu-ereduaren edukia aldatuko da, klausuletan beharrezkotasun-konnotazio guztiak saihesteko eta jarduten duen profesionalaren eta bezeroaren arteko negoziazioetan zein baldintza-akordio askeetan murrizketarik ez gertatzeko.»

7. 2013ko uztailaren 30ean ere, zehapen-prozeduraren inktoreak konpromiso-proposamena bidali zion LEKari, horren berri izan zezan. Era berean, LBNri bidali zion, egokiak irizten zizkion alegazioak egin zitzaizkion.

2013ko irailaren 11n, LBNk adierazi zuen proposatutako konpromisoak ez zirela nahiko hautemandako lehia-arazoak konpontzeko.

2013ko urriaren 9an, IZk Elkargoak aurkeztutako **konpromiso-proposamena gaitzesteko** Probidentzia eman zuen, bere iritziz, ez zituelako konpontzen zehapen-prozedura hastea eragin zuten lehia-arazoak. Horretaz aparte, hamabost egun balioduneko epea eman zion Elkargoari, lehiaren aurkako efektuak benetan konponduko zituen konpromiso-proposamen berria aurkezteko. Probidentzia hori 2013ko urriaren 11ko espedientean jakinarazi zitzaizkion interesdunei.

8. 2013ko azaroaren 5ean, Elkargoko ordezkari legalek izenpetutako idazkia jaso zen LEAren Erregistroan, **Konpromiso-proposamen berria** biltzen zuena. Bigarren bertsio horretan, honela zehaztuta geratu ziren konpromisoak: *(122. eta 123. orrialdeak)*

B) 2013ko irailean, elkargoaren oniritziaren erregelamendu berria aztertzeko beharrezko lanak hasi dira, eta Zerbitzu Juridikoek behin behineko testua idatzi



dute. Testu hori 2013ko azaroan eta abenduan egingo diren Elkargoko Gobernu Batzarretan aztertuko dute, eta, aurreikuspenen arabera, 2013ko abenduaren 31rako amaituta egongo da Batzar Orokorrean aurkeztuko den behin betiko testua. B) 2014ko apirilera arte luzatu beharko da erregelamenduaren onarpena Batzar Orokorrean aldetik, hilabete horretan egin ohi baita batzarra. Erregelamendua oniritziaren izaera boluntariora egokitu beharko da, Elkargo Profesionalei buruzko 2/1974 Legearen 13. artikulua (abuztuaren 5eko 1000/2010 Dekretuak garatzen duenak) xedatzen duenarekin bat.

Aipatutako Elkargo Profesionalak 2013ko abenduan Gobernu Batzarrak onartuko duen testua erakunde errekeritzaileari bidaltzeko konpromisoa hartzen du.

C) Harik eta elkargoaren oniritziaren erregelamendu berria argitaratu arte, elkargokideei banan-banan jakinaraziko zaie eta elkargoaren WEBGUNEAN argitaratuta egongo da kontsumitzaile eta erabiltzaileek, nahi izanez gero, oniritzia eskatzeko aukera dutela. Era berean, ordainsari profesionali buruzko araurik ez dagoela jakinaraziko da. Izan ere, egokitzat jotzen dituzten ordainketa-akordioak zein bestelako merkataritza-baldintzak ezartzeko aldeek duten askatasunaren eta kontratatzaileek duten erabateko askatasunaren mende egongo dira ordainsariok. Jakinarazpen hori 2013ko azaroan egingo da.

### Era berean, bi konpromiso berri txertatzen dira:

E) Elkargo Profesionalak Lehiaren Euskal Kontseiluak, hala badagokio, hitzarmen bidezko amaieraren inguruan hartutako ebazpenaren edukia osoz helarazi beharko dio elkargokide bakoitzari.

F) Aipatutako Elkargoak Lehiaren Euskal Agintaritzako Ikerketa Zuzendaritzari bidaliko dio onartutako aldatetak eta etorkizunean gerta daitezkeen beste guztiak egiaztatuko dituen dokumentazioa.

2013ko azaroaren 14an konpromiso berriak bidali zitzaizkion LBNri, zehapen-prozeduraren inguruko interesduna den aldetik, alegazioak egin zitzaizkion. Ez zuen alegaziorik egin.

**9.** 2013ko abenduaren 30ean, LEAren Erregistroan Elkargoaren Oniritziaren Behin Behineko Erregelamendua jaso zen, Batzar Orokorrek onartzeko zain zegoena (*129-132 orrialdeak*).

**10.** 2014ko urtarrilaren 13an, IZk **Hitzarmen Bidezko Amaieraren Akordio Proposamena** bidali zion LEKari, zehapen-espeditarekin batera. Bertan, IZk adierazi zuen Elkargoak



formulatutako konpromisoen bidez konpondu egiten direla hautemandako lehia-arazoak, eta behar bezala bermatuta geratzen dela interes publikoa. Horregatik, ebazpena emateko proposatzen dio LEKari, zeinaren bitartez aurkeztutako konpromisoak onartuko baitira eta zehapen-espeditentea hitzarmen bidez amaituko baita.

**11.** LEKak, 2014ko ekainaren 10eko bilkuran, espeditente honetaz eztabaidatu zuen eta espeditente hauxe eman zuen.

## **II. EGITATE FROGATUAK**

**12.** Elkargoaren Oniritziaren Erregelamenduak bere 3. artikuluan ezartzen zuenarekin bat, hurrengoei aplikagarria zitzaien berau: «Biologoek Elkargo Ofizialeko Batzar Orokorak onartutako ordainsari profesionalei, eta kontsumo publikoko ura eta ingurumen-zerbitzuen tarifei buruzko arauetan jasotako aurretiko ikerketa, plan, proiektu, txosten eta bestelako lanei(...)».

Bertan jasotakoaren arabera, era berean, elkargoaren oniritziaren mende zeuden bere lanbidearen barruan biologo batek egindako lan guztiak; oniritzitik salbuetsita zeuden, ostera, herri-administrazioaren zerbitzura elkargokideek egindako lanak, aurrekontuak egitearekin lotutakoak eta ikerketa, txosten edo proiektuen zati ez diren emaitzak lortzeko azterketak (5. eta 6. artikulua).

Era berean, elkargokide batek oniritzia saihestuko balu, Gobernu Batzarrak oniritziaren tarifaren % 50era arteko errenergua aplikatuko litzaioke; beste behin gertatuz gero, errenergua % 100ekoa izan ahalko litzateke (23. artikulua).

**13.** Zerbitzu Profesionalen Kontratuak zera ezartzen zuen bere bigarren baldintza orokorrean:

Bezeroak dagozkion ordainsari profesionalak ordaindu beharko dizkio biologoari, indarreko ordainsarien tarifekin bat; horretarako, bi aldeek Biologoek Elkargo Ofizialaren irizpena eta balorazioa onartzen dituzte. Biologoak gutxi gorabeherako zenbatekoa ordaintzeko eskatu ahalko dio bezeroari, kontu-aurrerapen moduan.



Era berean, beste baldintza orokor batzuek hurrengoei erreferentzia egiten zizkieten, besteak beste: gastuak eta ordejarriak (bezeroaren konturakoak izango zirenak); ordainsariak, gastuak eta ordejarriak ordaintzeko unea (lana entregatu ostean); berandutza-interesak (% 10).

**14.** Elkargoaren webgunetik Elkargoaren Oniritziaren Erregelamendua eta Zerbitzu Profesionalen Kontratua deskargatu zitezkeen<sup>2</sup>.

**15.** LEAren errekerimenduaren ondorioz, Elkargoaren webgunean oniritziei buruz jasotako informazioa eta, zehazki, oniritzien beharrezkotasunari buruzkoa aldatu zen; honela geratu zen idatzita<sup>3</sup>: (134. eta 135. orrialdeak)

LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAren errekerimendua betez, adierazten dugu lan-profesional ororen ONIRITZIAren eskaera **boluntarioa dela**, eta, era berean, ez dagoela aplikatzeko moduko araurik ordainsari profesionalen inguruan; hala, ordainsarien zenbatekoari edo ordaintzeko moduari dagokienez, aldean askatasunera egokitu beharko dira.

Modu berean, Elkargoak, bere webgunean, Elkargoaren Oniritziaren Erregelamenduaren aldaketarekin lotutako informazioa txertatu zuen.

Aipatu elkargo profesionala Elkargoaren Oniritziaren Erregelamendu berria onartzeko lanak egiten ari da, indarreko legeriarekin bat etorriko dena. Aipatutako testua hurrengo Batzar Orokorrean onartu beharko da.

### III. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

#### 1. Biologo-lanbidea eta araubide juridikoa

**16.** Biologo-lanbidea **nahitaez kolegiatzea** eskatzen duen lanbidea da.

Azaroaren 21eko 18/1997 Legearen, *tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoaren*, 30.1 artikuluan

<sup>2</sup> Jarraian adierazten da EUSKADIKO BIOLOGOEN ELKARGO OFIZIALAren webgunea, zeinetik Elkargoaren Oniritziaren Erregelamendua eta Zerbitzu Profesionalen Kontratua deskargatu zitezkeen: [http://www.cobeuskadi.es/Contenidos/Ficha.aspx?IdMenu=9\\_5A0A047-FECA-4C4A-93D8-DD4433E6E4A9](http://www.cobeuskadi.es/Contenidos/Ficha.aspx?IdMenu=9_5A0A047-FECA-4C4A-93D8-DD4433E6E4A9).

<sup>3</sup> Espedientean ageri den bezala, 2014ko urtarrilaren 2an kontsultatu zen.



zehaztutakoa betez, Lanbide kolejiatuetan jarduteko ezinbesteko baldintza da dagokion elkargoko kide izatea, elkargoa sortzeko legeak horrela ezartzen duenean, edo legearen ondoren emandako lege-mailako arauen batek edo, hala egokituz gero, 29.3 atalean aurreikusitakoak ezartzen duenean, eta elkargoko estatutuek hala xedatzen dutenean<sup>4</sup>.

Betebehar hori Biologoek Elkargo Ofiziala sortzeko 75/1989 Legearen 3. artikuluan eta Biologoek Elkargo Ofizialaren Estatutuen 7. artikuluan (zeinak apirilaren 26ko 693/1996 Errege Dekretuaren bidez onartu baitziren) jasota dago.

## 17. Biologoek jarduera profesional hauek egin ditzakete:

- a) Organismo bizien azterketa eta ikerketa: sistematika; biologia; animaliak, landareak eta mikroorganismoak; agente patogenoen azterketa eta ikerketa; portaera; ekosistemak.
- b) Hezkuntza / irakaskuntza: jeneralista; ingurumena; osasuna; jolas-biologia.
- c) Kontrol demografiko eta epidemiologikoa: infekzioak eta izurriteak; biztanleria-mugimenduak.
- d) Industria-produktuek izaki bizidunetan duten eraginaren kontrola: elikagai-gehigarriak; pestizidak, fitosanitarioak; botikak; produktu kimikoak orokorrean.
- e) Kudeaketa: parke naturalak; parke zoologikoak; lorategi botanikoak; museoak; lurralde-antolamendua.
- f) Kalitatearen azterketa eta kontrola: elikadura-produktuak; atmosferaren kutsadura; hondakin solidoak; urak; zoruak.
- g) Jatorri biologikoko produktuen kontrola eta identifikazioa.
- h) Adituen txostenak.
- i) Aholkularitza: ingurumen-inpaktuaren ebaluazioak; ikerketa zinegetikoak; ikerketa ekologikoak; paisajismoa; ingurumen-zaharberritzea; ingurumenaren alorreko kontu-ikuskaritza.
- j) Ustiapenak / ekoizpena: jeneralista: ingurumena; osasuna; jolas-biologia.
- h) Osasuna: analisi klinikoak; mikrobiologia eta parasitologia; immunologia; biokimika klinikoa; genetika / familia-plangintza; nutrizioa; dietetika; tratamendu fitosanitarioak.

---

<sup>4</sup> 29.3 artikulua.– Elkargo baten sorrera beste bat edo batzuk deuseztatzeagatik edo esparru zabalagoko beste batetik bereizteagatik gertatzen denean, eraginpeko elkargo guztien aldeko irizpena beharko da. Gero, dagokion kontseilu profesionalak aginduzko txostena egin beharko du, eta, azkenik, Jaurlaritzak dekretua emango du, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko delarik.





## 2. Euskadiko Biologoek Elkargoa

**18.** Abenduaren 26ko 75/1980 Legeak Biologoek Elkargo Ofiziala (estatukoa) sortu zuen, zuzenbide publikoko korporazio gisa, eta berezko nortasun juridikoa eman zion eta gaitasun osoa, helburuak erdiesteko. Elkargoa delegaziotan antolatu zen, autonomia-erkidegoetan zeuden unitate operatiboek moduan, baina horiek ez zuten autonomia legalik. 1996an bere estatutuak onartu ostean, delegaziook banatzeko prozesua hasi zen. Hala, lurralde-elkargo independente bihurtu ziren, eta autonomia-erkidego bakoitzeko elkargo profesionalei buruzko araudiari lotuta zeuden.

Euskadiko Biologoek Elkargo Ofiziala uztailaren 8ko 167/1997 Dekretuaren bidez sortu zen, estatukotik bananduz.

## 3. Hitzarmen bidezko amaieraren oinarri legala

**19.** LDLren 52. artikulua ezartzen duenaren arabera, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko (MLBN) Kontseiluak, Ikerketa Zuzendaritzak proposatuta, debekatutako akordio eta praktiken inguruko zehapen-prozedura amaitzea ebatzi ahal izango du, baldin eta ustezko arau-hausleek **konpromiso batzuk** hartzea proposatzen badute, eta horien bidez espedientea irekitzea eragin duten jokoak **lehian zituzten ondorioak konpontzen badira eta interes publikoa behar beste bermatzen bada**.

Konpromiso horiek lotesleak izango dira eta prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean jasotzen direnetik aurrera izango dituzte ondorioak. Prozedura ezin izango da artikulua honetan zehazten den moduan amaitu, LDLren 50.4. artikuluan aurreikusitako proposamen-txostena aurkeztu eta gero.

Aipatutako LDLren 52. artikulua garapen moduan, Lehia Defendatzeko Erregelamenduak, otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuaren bidez onartutakoak, zera ezartzen du bere 39. artikuluan: prozeduraren edozein momentutan, baina proposamen-txostena aurkeztu aurretik, Ikerketa Zuzendaritzak, debekatutako jokabideen ustezko egileek proposatuta, debekatutako akordioek eta jokabideen eremuko zehapen-prozeduraren hitzarmen bidezko amaiera lortzeko





jarduerak hastea erabaki ahal izango du. Zehapen-prozeduraren hitzarmen bidezko amaiera hasteko akordioa interesdunei jakinaraziko zaie, prozeduraren gehienezko epearen zenbaketa hitzarmen bidezko amaieraren bukaeraraino etenda geratzen bada adieraziz.

Ustezko arau-hausleek beren konpromiso-proposamena aurkeztuko dute IZn, honek hitzarmen bidezko amaieraren akordioan zehazten duen epean; ezin izango da hiru hilabete baino gehiagokoa izan. Proposamen hori Lehiaren Batzorde Nazionaleko Kontseiluari igorriko zaio jakinaren gainean egoteko, bai eta interesdunei ere, egokiak iruditzen zaizkien alegazioak aurkeztu ditzaten.

Ondoren, Ikerketa Zuzendaritzak Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko Kontseiluan aurkeztuko du hitzarmen bidezko amaieraren proposamena, onartzeko eta prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean gehitzeko. Hitzarmen bidezko amaieraren proposamena jasotakoan, Lehiaren Batzorde Nazionaleko Kontseiluak zera egin ahalko du:

- a) Zehapen-espeditentea hitzarmen bidezko amaieraren bidez ebatzi, aurkeztutako konpromisoak egoki irudituz.
- b) Aurkeztutako konpromisoek espeditentearen xede diren jokaeren ondoriozko lehiaren gaineko eraginak ez dituztela behar bezala ebazten edo interes publikoa ez dutela nahikoa bermatzen ebaztea. Hala denean, ustezko arau-hausleek Lehiaren Batzorde Nazionaleko Kontseiluan antzemandako arazoak konpontzeko konpromiso berriak aurkezteko epea eman. Epe hori amaitu ondoren, ustezko arau-hausleek konpromiso berriak aurkeztu ezean, eskaria atzera botako da eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko Kontseiluak Ikerketa Zuzendaritzari zehapen-prozeduraren jarraipena eskatuko dio.

**20.** LDLren zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, legean MLBN eta haren zuzendaritza-organoak aipatzen direnean, haien funtzioei, administrazio-ahalmenari eta prozedurei dagokienez, arloan eskumena duten autonomia-erkidegoetako instrukziorako eta ebazpenerako organoak barne direla ulertu behar dira, noiz eta aipatu LDLren 13. artikuluan ezarritako eskumenei buruzkoak diren. Horregatik, hitzarmen bidezko amaiera adosteko eskumena du LEKak.



#### **4. Elkargoak aurkeztutako konpromisoak**

**21.** IZk Hitzarmen Bidezko Amaieraren inguruko Akordio Proposamena bidali dio LEKari, Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialaren 04/2013 zehapen-espedientearekin lotuta. Bertan, IZk uste du Elkargoak formulatutako konpromisoen bidez, konpondu egiten direla hautemandako lehia-arazoak, eta behar bezala bermatuta geratzen dela interes publikoa. Horregatik, ebazpena emateko proposatzen dio LEKari, zeinaren bitartez aurkeztutako konpromisoak onartuko baitira eta zehapen-espedientea hitzarmen bidez amaituko baita.

LEKa iritzi berekoa da. Haren arabera, zehapen-prozedura hitzarmen bidez amaitzeko proposatutako konpromiso berrien edukia nahiko da egiaztatutako lehiaren murrizketak gainditzeko, eta behar bezala bermatuta geratzen da interes publikoa.

Deskribatutako jokabideak lehia-arazoak eragiten zituen. Izan ere, Elkargoak beharrezkotzat hartzen zuen oniritzia, Legeak betebeharrak ezartzen ez duen kasuetan, bai eta kasuon ondoriozko gastuetan ere.

Elkargoaren Oniritziaren Erregelamenduan eta Zerbitzuen Kontratua izenekoan egindako aldaketek, konpromiso-proposamenean jasota daudenek, bai eta espediente honen xede izandako erabakiak jakinarazteko betebeharrak eta webgunearen edukiaren berehalako aldaketak ere, argi eta garbi konpontzen dituzte hautemandako lehia-arazoak.

Prozedura hau izapidetu bitartean Elkargoak aurrera eraman dituen jarduketek egiaztatzen dute beroriek azkar eta eraginkortasunez ezar daitezkeela. Gainera, horien betetzearen eta eraginkortasunaren zaintza egingarria eta eraginkorra da.

**22.** Ebazpen honen eta hari erantsitako konpromisoen jakinarazpena hilabeteko epean egin beharko da, Ebazpena jasotzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita.



Alde batetik, Elkargoak kideei banan-banan jakinarazi beharko dizkie ebazpen honen edukia eta hari erantsitako konpromisoena.

Bestetik, Elkargoak bere webgunean (gaur egun, <http://www.cobeuskadi.es>) argitaratu beharko ditu ebazpen honen edukia eta hari erantsitako konpromisoena. Argitalpena webgunearen leku nabarian jarri beharko da, gutxienez hamabi hilabetez, eta hilabeteko epean egin beharko da, ebazpen honen jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita.

**23.** Hitzarmen bidezko amaieraren ebazpenak barne hartzen dituen konpromiso eta betebeharrak betetzen ez badira, Lehia Defendatzeko Erregelamenduaren 39.7 artikulua aplikatuz, arau-hauste oso larritzat hartuko dira, LDLren 64.4.c artikuluan ezarritakoarekin bat; era berean, behartzeko isunak ezartzea eragin ahalko dute, bai eta, hala badagokio, zehapen-espedientea irekitzea ere, LDLren 1., 2. edo 3. artikulua hausten badira.

Adierazitako guztia kontuan hartuta, Lehiaren Euskal Kontseiluak

### **HAUXE EBAZTEN DU:**

**LEHENENGOA.-** Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialaren 04/2013 zehapen-prozeduraren hitzarmen bidezko amaiera adosten da, izaera loteslearekin, Lehia Defendatzeko 15/2007 Legearen 52. artikuluan aurreikusitakoa betez.

Horretarako, kontuan hartu dira Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialak proposatutako konpromisoak, ebazpen honen I. eranskinean jasota daudenak.

**BIGARRENA.-** Hitzarmen bidezko amaieraren inguruko akordioa behar bezala betetzen dela bermatzeko, adosten da Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialak Konpromiso-proposamenak bildutako obligazioak bete beharko dituela, ebazpen honen I. eranskinean jasota daudenak.



**HIRUGARRENA.-** Ikerketa Zuzendaritzari egokitzen zaio hitzarmen bidezko amaieraren akordioaren, eta, ondorioz, lortutako konpromisoen eta ezarritako obligazioen zaintza.

Jakinaraz bekio Ebazpen hau Ikerketa Zuzendaritzari, eta jakinaraz bekie Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialari eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari, eta adierazi behar zaie Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipin dezaketela EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, aipatu jakinarazpenetik hasi eta bi hilabeteko epean.

**PRESIDENTEA**

**MARÍA PILAR CANEDO ARRILLAGA**

**IDAZKARIA**

**IBON ALVAREZ CASADO**

**KIDEA**

**NATIVIDAD GOÑI URRIZA**

**KIDEA**

**RAFAEL ITURRIAGA NIEVA**



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

## ERANSKINA

### EUSKADIKO BIOLOGOEN ELKARGO OFIZIALAREN KONPROMISO PROPOSAMENA

A) Ikerketa honen xede diren Elkargoaren Oniritziaren Erregelamendua nahiz zerbitzuen kontratua Elkargo Profesionalaren WEBGUNETik kendu dira.

B) 2013ko irailean, elkargoaren oniritziaren erregelamendu berria aztertzeko beharrezko lanak hasi dira, eta Zerbitzu Juridikoek behin behineko testua idatzi dute. Testu hori 2013ko azaroan eta abenduan egingo diren Elkargoko Gobernu Batzarretan aztertuko dute, eta, aurreikuspenen arabera, 2013ko abenduaren 31rako amaituta egongo da Batzar Orokorrean aurkeztuko den behin betiko testua. 2014ko apirilera arte luzatu beharko da erregelamenduaren onarpena Batzar Orokorraren aldetik, hilabete horretan egin ohi baita batzarra. Erregelamendua oniritziaren izaera boluntariora egokitu beharko da, Elkargo Profesionalari buruzko 2/1974 Legearen 13. artikulua (abuztuaren 5eko 1000/2012 Dekretuak garatzen duenak) xedatzen duenarekin bat.

Aipatutako Elkargo Profesionalak 2013ko abenduan Gobernu Batzarrak onartuko duen testua erakunde errekeritzaileari bidaltzeko konpromisoa hartzen du.

C) Harik eta elkargoaren oniritziaren erregelamendu berria argitaratu arte, elkargokideei banan-banan jakinaraziko zaie eta elkargoaren WEBGUNEan argitaratuta egongo da kontsumitzaile eta erabiltzaileek, nahi izanez gero, oniritzia eskatzeko aukera dutela. Era berean, ordainsari profesionalari buruzko araurik ez dagoela jakinaraziko da. Izan ere, egokitzat jotzen dituzten ordainketa-akordioak zein bestelako merkataritza-baldintzak ezartzeko aldeek duten askatasunaren eta kontratatzaileek duten erabateko askatasunaren mende egongo dira ordainsariok. Jakinarazpen hori 2013ko azaroan egingo da.

D) Zerbitzu profesionalen kontratu-ereduaren edukia aldatuko da, klausuletan beharrezkotasun-konnotazio guztiak saihesteko eta jarduten duen profesionalaren eta bezeroaren arteko negoziazioetan zein baldintza-akordio askeetan murrizketarik ez gertatzeko.

E) Elkargo Profesionalak Lehiaren Euskal Kontseiluak, hala badagokio, hitzarmen bidezko amaieraren inguruan hartutako ebazpenaren edukia oso-osorik helarazi beharko dio elkargokide bakoitzari.

F) Aipatutako Elkargoak Lehiaren Euskal Agintaritzako Ikerketa Zuzendaritzari bidaliko dio onartutako aldaketak eta etorkizunean gerta daitezkeen beste guztiak egiaztatuko dituen dokumentazioa.